

JESUS PEÑA'REN EREDUA

Gure anai-arteko guda ontan, agertu zaigu eredu bat ezin deguna utzi, alde-rantziz jarraitu bear genukena, Josu Peña ren emaitza.

Josu Peña k izkillatzen dutenean ogeta bi urte ditu ta badu ordurako idazlan mordua idatzia ta aldizkarietan argitaratuak.

Alderdi batetik, garai artako gaztediak in bizi da ta lana egiten du. Bere idazlanak garai artako aldizkari onenetan argitaratuak daude.

Gaiñera, euskalduna dugu mutil-au, ta euskaraz itz egin ta asmatzen du; orregaitik erakusten dizkigu gure izkuntzaren edertasunak; ta gure ikerketak bear du nai-ta nai-ez begi-aurrean euki, orrelako gizon berezia; gure ekintza da illunpetik ataratzea. Orrela egiten da gure erriaren edestia ta kultura.

Guk euskeraz idazten degula gure anai arteko gudari buruz, zabaltzen degu gure literaturaren larraña ta erria; orrela beartzen ditugu ere gure lanak euskal kultura zabaltzen.

Josu Peña k erakutsiko digu, nola ez, gure literaturaren argitasuna ta illuntasunak argitara eramaten; ortxe ikusiko degu nolako indarra daukan iruzurrak ta zenbateraiño izan diteken kaltegarria. Gaiñera gazte onek erakutsiko digu, anai-arteko gudaren erroak nun dauden; bear bearrezkoa da guk danok ezagutzea.

NOR DOGU IDAZLE GAZTE-AU?

Jesus Peña izenarekin batajotu zuten, nolako nortasunaren jabe dan ikusi bear guke; onena bere argazkia agertzea; eta errian Josu Peña gizon langille bezela artua daukate. Astegunetan fabrikari lan egiten du, langille-erri batean jaio ta bizi da Aretxabaletan, gurasoak ere langilleak ditu.

Ortik alde, aste-bukaeran beste gai batzuk dabizki eskuetan; beste zerbaiteen aurkezle bezela, batez ere San Antonio irin-fabrikari ere ordezkari bezela.

Danera "Kongregationn laguntzen djo, batez ere bideak antolatzen eta ekin-tzak aurrera eramaten. Kongregatió ko idazkaritza berak dauka, garai bardiñean batzoki ko ordezkari-tza berak darama.

Gizon garbia da, zuzen bizi da, zuzentasuna maite ditu, bere arduradunak maite ditu ere.

Irudi bat bere buruakin egiña du. Alderdi guztietan argia ta maitasuna dario.

Bere lanetan, batez ere idazten, zorrotz eta garbi lan egiten du. Erriko eskola bukatzen danean, beste gazteekin batera billatzen da, ekintza jatorrak egiteko argitasun berezi bat lortu du. Ziur nago, lider bat izango zala, orrela, batzoki-ekin ere idatziko zuen.

Gazte langille ta jatorrakin bat egingo zuan, ala guztiz ere karlista batzuek begi-tartean izango zuten. Ala dio batek: "Ez dezala bere anka emen sartu, laster bere bizia bukatuko da". Andik gutxiara jakin zuten garbitu zutela, erietxetik atera eta garbitu zuten.

Andik denbora batera, meza bat atera zuten denentazat. Orrela gelditu ziran gauzak.

Oraingo lan onetan, mutil gazte au, eredu bat bezala gelditzen da.

IRITZI ARIÑA

Izen aundiko idazleak, len ondo egiñeko lanen gizonak, Josu Peña'ri buruz mintzo dire, esanez gazte au, errijetako korresponsal bat dela; onek esan nai du errietako berrien idazlea edo berri emallea.

Elertietan edo idaz-malletan, erriko berrj-emallea gai ariñaren egillea da, benetan idazle soilarena. Ikerketa au amaitu ondotik, idazleak diotena Josu Peña'gaz ez dela ain zuzen esana, oartuko gera.

Bai egia da gazte onen idazlanak, gutxjnaz aipatutako erriko mailla orretan, erriko berri emalle baten lanak ditugula, baña ikusiko dugunez, iritzi au, ez dugu gehiago bage gurea egiten.

IRITZI ARIÑAREN AURKA

Jesus Peñá ren elertjari buruz, gaur arte esandakoa, nai ta naiez aldatu bearra dago. Mutj gazte onen ikerketak agintzen digute ori egitea.

Emen eta an, al genuen tokian arkitutako idazleen ikerketak beste doñu bat jotzen dute.

Dena dela beste iritzi bat iristera beartzen gaituzte.

Gure idazle au oso gaztea dugularik ogeitabi urte ditu, garai artako egunkari ta aldizkarietan lanean dabil. Bere lan ojek, garai artako aldjzkarj ezagunenetan agertzen ditu. Adibidez "Gure mutillak", "Euzkadi", "Argia" eta "Eguna" Ez ote da geiegitxo bere adiñako gazte betentzat?.

Naiz erri koxkor baten berri emalle bezala agertu, bere bizitzan lau urrats nagusien giroa ta buruaustek azaltzen ditu, baita ere idazle trebe baten esku ona.

Erabilitako gaiak, gutxi gora bera lau dira, garrantzi paregabekoak egun aietarako. Garai artako edestiaren muñña ondo ezagutzen du, oso gazterik asita, indar aundiko idazle baten aurrean gaudela ajtortu bear.

Berez etorkjzun eder baten idazlea dugu gure eskuartean. Bañan etorkizun aundiko idazlea ikusten dugula, betiko desegina uzten dute, bere gaztaroan. Erraldoia jotzen dute. Erio ori galera aundienetakoa da Euskalerrientzat.

Gure erriak, geienetan, erriko berri-emalleak ondo ikusten ditu. Nolako gertakizunak agertzen diren tokj askotan, egutegien bidez jakiten digu; nolako egunetan alako ekintzak.

Josu Peñak erriko berrien inguru osoa gordetzen du bañan askozaz urrutia-go jotzen alegintzen da. Zerbait eta nunbait gertatzen dela beste gai berexiren bat erabiltzen du, indar eta trebetasunarekjn. Antxe dijoa zuzenean, naj duen

bidetik barrena, gizon egiña bezala, argitasun osoa emanaz. Erriko berriak ikuitzen ditu, bai, baiñan zerbait ge;ago emanaz. Ala ba, zerbait aundiagoa arkj-tzen dugu Josu Peña'ren idazkietan.

ITURRI SENDOAK

Emen atal onetan sartzan ditugu, guk bildutako lan guztiak:

"Gure Mutillak" delako aldizkarian	bat	1
"Euzkadi" delakoan	zortzi	8
"Argia" delakoan	amaika	11
"Eguna" delakoan	lau	4

24

Danetara 24 idazlan zenbatzen ditugu.

Gure esker beroenak, Mari Karmen Gomez andereari, Gazteiz'ko liburu-etxe nagusiaren zuzendariari eman nai dizkiogu, batez ere gai guzti auek biltzen eta billatzen alegindu delako. Ementxen, lan ontatik, ain zuzen, berriz eta berriz esker onenak ematen dizkiogu, erabaki genuen bezala. Oso eskertsu gaude emakume zuzendari langile onekin.

Gure gaiari eusten diogula, esan bearra degu, Josu Peña oso idazle ona dugula eta aberastutzen gaituna, bere garaiko kulturazko ga;etan. Guk danok eredu bezala euki dezakegu. Benetan, asko ematen digu.

ETEKIÑA BILDUZ

Lenengo idazlanak Luistarren jaija nola ospatu zuten esaten digu. "Congregatio"ko gazteen ekintza oietaz mintzo da. Egun ura nola ospatu zuten ad;erazten digu xeetasun ugariekin.

Aita Aguirre'ren zuzendaritzapean lana egiten dute. Baiñan itzik ez erabillitako gaiari buruz. Giroa, asmoak, argibidea nolakoak izan ziren ez ditu ikuitzen ere. Gaztegia izaki ori egiteko. Gaiak, gai bezala ez agertazea, izan leike errespetuz egitea eta izatea.

Gaztedi ura, ain ederra, nundik datorren ere esaten digu. Ala dio: "Donosti'tik, Arrasate, Durango"tik datoz. Buru bezala Aita Aguirre ari da lanean, eta Antonio Murillo egunkariaren zuzendari bezala, ikusten dugu. Talde ederra daukate zuzendarien laguntzalle bezala, eta oien artean, baita ere Josu Peña.

Danen artean eunen bat mutil bildu dituzte.

"Gure Mutillak" delako aldizkaria 1933'garren urtean sortu zuten, "Congregazioe'kin" lana egiteko. Aldizkari au 1937'garren urtean ixildu zen.

BIGARREN MALLA DELAKOAN

Bigarren malla, "Euzkadi" aldizkarian, an argitaratutako bere idazti guztietan agertzen zaigu.

Zortzi idazlan, "Euzkadi" aldizkarian arkitu ditugu argitaratuak. "Euzkadi" aldizkaria 1913'garren urtean asten da agertzen. Aldizkariak anaiarteko guda arte irauten du.

Bi neurriko gaiak agertzen dira or: alde batetik; deituko genukena gogotik aberzaletasunaren etekiña, eta beste aldetik etsaiaren gorrotoa. Lenengo talde orretan bilduak agertuko ditugu itz eta asmo aipagarriak. **BIGARREN TALDE ORRETAN SARTUAK IZANGO DIRA GUK DEITUKO DITUGUNAK ESKUBITARREN ALDERDI MAKALA, JOKABIDE ZIKIÑA.**

Gure idazle onek berri jakingarria emango digu; berak dionez, "karlistak" irabazi dute, azkeneko auteskundeetan baserrietan. Emakumeen bidez alderdiak arrakasta aundia lortu du, auteskunde oietan. Erriko semea dan Loramendi'ri gazteak omenaldi eder bat ari zaizkiote antolatzen.

Aberzaleen asmoak zabaltzen ari direnak Monzon, Aguirre, Prieto eta abar Konzierto Ekonomikoa ere Aretxabaletan Luistarren jaiekin asten da, aisatua izaten, "Ez dut uste iñoiz aztuko zaiela", dio gure idazleak, Jesus Peña'k.

IRUGARREN JOKABIDEA

Oraingo ataltxo onek salbazioko bideak obeto ezagutzeko aukera ematen digu. "Argia" asteroko aldizkarian agertzen dira euskaraz Donosti'n, 1921'garren urtea ezkeretik, eta 1936'garren urtea arte. Danetara amaika idazlan arkitu ditugu, "Argian" argitaratuak. Jesus Peña'k erabiltzen dun gaia "burla" edo ixeka da.

Nunbait neskak erdaraz egiten dute eta euskaraz egitea lotsa ematen die. Ez dakjte oso ondo euskaraz irakurtzen, eta parregarria da nola egiten duten erderaz. "Doña Konstanzia" karlisten aldizkariaren zuzendaria, oso aserre egonen da.

Ixeka antziña garaiko jokabidea da, enda edo erri txikietan asko erabiltzen dena. Giro orretan sortuak dire izengoiti, elezar eta berri zunbait, norbait atsegin ez zenian, ondo ez uzteko besteen aurrean. Gaizki esanak gogoan artzen ditu eta bear ez direnean ateratzen, "oker eta zuzen" itzetan, dena parregarria gelditzen da. Ramiro de Maeztu toki txarretan gogoratzen du.

Itz traketsak sartzen ditu ta bersotan jartzen al dan okerrena. Orrela itzak parregarri erabiltzen ditu, gañera olerkiak, naita al dun txarrenak egiten ditu. Okerraren bidez gauzak ankaz gora deitzen ditu, baita erabiltzen. Orrela okerrak bi bider aundiagoak ikusten dire... Berez etorriko ba lira bezala gauzak esaten ditu; alaxekoak ba lira bezala.

Etsaia zapaltzeko ixeka erabiltzen zan, batez ere burua makur arazteko. Orrekin etsaia parregarria ikusi bear, makur gelditzen da itzak bear bezala neur-

tzen ez ditula. Frantzez itzak ere trakets erabiltzen ditu: "Vous monsieur, COMMENT LE PORTE VOUS".

Garbi ta ongi ikusi dezakeguna da ixeka egiten oso ondo dakila gure idazle gazte onek, etsaiarentzat ere beldurgarria zen ta kaltegarria, nornaikin sartzen zen Jesus Peña, baita ere Ramiro de Maeztu erdal idazlearekin. Irain egiten alegintzen da. Alde batetik bear diran itzak ezagutzen ditu, baita berri txarretan sartzen. Bi aldiz mintzo da. Berez sortzen zaio. Etsaiak zanpatzen ditu. Euskaraz itzak naiko gordiñak ez ditunian arkitzen erdal izkuntzatik artzen ditu, bear ditunak. Ikus eredu maiz gordiña:

"Menos pasión Patxikote
que te veo el cogote"

Bestealdetik egia da, egunkarian, idazlanak bat bestearen ondoan datoztela ixeka egiten, uzten d;otela argitaratzen gure idazle gazteari. Garai illun ta naiko beltzak datoztela, ez da arritzekoa orrelako etsai beldurgarriak iltzeko zerrendan sartzea ta eukitzea, gure idazle gaztearen garbiketa era bat lortzeko.

LAUGARREN MALLA

Bere bizitzaren azkeneko malla arkitzen dugu oraingo onetan; "EGUNA" egunkarian euskeraz lau idazlan argitaratzen ditu. "EGUNA" egunkaria, euskaraz idatzia Bilbo'n ateratzen dute, 1937'garren urtean bakarrik. Guda garaian gaude. Idazki oietan gudaren giroa nabaritzen dugu.

Idazlea eragozpen aundi oietan gizon arkitzen dugu. Betebearraren aurrean, bakarrik, ixilik dago. Alaxen giro txarraren usaia artzen du.

Barrena miñak erretzen, erreztasunaren besoetan ez da erortzen. Gizon jokutzen du. Alduna aberriaren alde eta obekiena jokutzen alegintzen da. Parregarria dena baztertzen du. Azkeneraño osorik irautea da bere asmoa. Naiz barrena lertzen euki bera beti gizon, eta itzari eutsi azkeneraño.

Berri gutxi ematen ditu, barrenak nabari. Gabonetan len, sendi osoa bilduta. Eguberriak ospatzen zituzten. Idazle-izena ere aldatu diote. Emendik aurrera "Beltza" deituko dute. Azken gaia idazlanaren VI"garren Eibarren ostiko partidua izanen dute, jaialdi bakarra ospatuko dute. Irabazleak Aretxabaletatarrak izanen dira. Aberri eguna Eibarren, jai aldi bikotin ospatu zen. Azken idazlanak ala dio: "VI"garren Aberri eguna nolakoa izan zan agertzen dugu.

Eibarren jai aldi ederra ospatu zen: lasterketa, arrijasotzalleak, bazkaria, pelota jokaldia... illunabarrean eusko dantzak. Zaragoitia lagundiak antolatutako jaiak, zorigaitza aundiakin ospatuak izan ziran. Gazte aiek ala diote: "ORI umo-rea. Ementxen azken atsa..."

Urrengo urtean, Euskadi'n euskaldunak eskuak lotuta. Azkeneko izkiekin esaten zigunak agertzen du nola uste ez zuena gertatuko zan: "Guretatik ez dute iñor irail edo afusilatu..."

Bi anaiak berdintzen ditun arazo nagusiak, karlistak alde batetik eta abertzaleak bestetik, auxe da: Jose Peñak bere iritzi karlistak espagnolistak dira besteak ez.

Orren aurretik auxe esaten zuen: "Gure anaiak ba datoz gurekin euskotarrekin". "Paxistak eta karlistak", anaiak deitzen ditu..." Nik uste det pasatuko dirala geiago alderdi ontara..." influentzi puxka bat ba degu "paxista" artean, ba asko gure anaiak dira..."

Ementxen ikusten ditugu amets-legor (utópico) Josu Peñá ren gogoetak; aurren, karlistak anaiak bezala artzen ditu; aberzaleen alde irri;statuko dirala uste du; irajllak betiko legor ;zanen d;ren, egitazko giz-jokabideetatik oso urruti b;zi da. Tamalgarria. Goizean goizeko otzarekin, etxetik ixillik aterata, erbia bezala garbituko dute ogeitabi urteko mutilla, gure idazlea JOSU PEÑA.

AZKEN XEETASUNAK: IDAZLEEN ARTEKO IKUTUA

Gure idazlea, obeto ezagutzeakin, xeetasun garrantzi aundikoak aztertu bearko ditugu.

EUSKERA

Danez gain esan dezakeguna auxe da: erabiltzen duen euskara guipuzkoa-rra dala. Bai lexikoaren aldetik bai izkuntzaren itxuragatik, arpegiari begiratur.

Gañera aditzak ere ba du berex;tusun aundi bat.

"Aitza" itzarekin bere idazlan guztiak izenpetzen ditu.

"Peña" itzak erderaz orixe bera esan nai du.

Euskera oso garbia erabiltzen alegintzen da.

Ba dauka egokitasuna ta txinparta. Bereixten du oso ongi bere izkuntza, Joskerari asko begiratzen dio.

Ementxen, orrian aurreratzen ditugu eredu eder batzuek, ematen dizkiguten ikusiak esateko:

"Ederki bete dezute zuen egin bearra"

("GURE MUTILLAK - AZILA Aretxabaleta-Luistarren jaiaz)

"Alaitasun aundiagaz igaro genduan

bazkariko denbora... gazteari

dagokion era" (GURE MUTILLA - Azila 1933, 59 zenbak)

Oso gazterik asi zitzaigun idatz lanetan; emezortzi urtekin.

Emezortzi urteekin a;tari eskuratzen dizkio eredu asko.

Emezortzi urteekin asten da lanean egunkari onenetakoetan.

Bere idazkietan noizbeinka erabiltzen ditu itz zallak edo gogorrak.

Ezin dugu aztu itz guzti oien eragille bezala Sabino berbera dabilkigula lanean eta ikasle onak, gai oiek eusten dabiltzala... Euskal idazleak erdararekin kutsatu gabe egia mendearekin azia ematen asi ziran. Orrelaxe arkitzen z;tuzten lenengo jokabideak.

Ara emen eredu batzuek:

Gureneraño,
Aneurkin,
Eritxadon,
Oturuntza (almuerzo)
Otodontza
AUTARKIA (EUZKADI, 1935, BAGILLA 2)
IZPER (Noticia)
USKURTZA (Religión) (EUZKADI, 1934, VIII-16)1
JAURA NAGUSIA (Misa Mayor)
GURENDA (1935 EUZKADI, BAGILLA 2)
"TXINDIRIK (EUZKADI, 1935, VIII-16)
Aldunak edo Diputadoak...eta abar.

Josu Peña euskal idazle deitu dezakegu, berak egindako idazlanak ogeitalau dira. Oietatik bat bakarrik dago erdaraz.

Erdaraz egiña auxe da "Euzkadi - 24 Idazlearen zenbakia).

IZENEN ZERRENDA

Jesús Peñak ematen dizkigun errien berriak; n izenen zerrenda ugari deza-gun... Izen oiek zerbait esaten digute. Gai batzuek agertuaz nolako garrantzia daukaten gure idazle gaztearentzat ta ori dena gure idazlearen ingurua agertzen digutelako. Iru gai nagusi ditugu aidean: erlijioak, jolasak eta aberzaletasuna... Josuk aurpegi guzti oiek ezagutzen zituen. Giro baten ezaugarri dira.

Izenen giltzari Lorentxo Peña, Josu'ren anaia dugu. Bat, emango dizkigu balio aundiko berri batzuek eta orrekin mesede ederra egiten digu... Lorentxo Peñak oso ondo ezagutzen du bere erria.

IZEN-ZERRENDEN AZTERKETA

Lenengo izena argitaratzen dun egunkaria GURE MUTILLAK delakoa da.

EGUNKARIAN AGERTZEN ZAIGU ARGITARATUA (GURE MUTILLAK, 1933-Azila) aipatzen ditu eta batez ere garai artako ari diranetaz... Orduko arduraduna gizon aundia daukagu benetan. Langille amorratua da. Aberzaleak anai-arte-ko guda galtzen dutela, beste jesuita aberzaleen antzera erbestera dijoa. Eunka daude erligio-gizonak erbesteratuak eta atzerrian lan egiten dutenak, eta aberri; k urruti biziko direnak. Konbentu bakoitxean daukagu "makis" antzeko guda. Eskubitarrek ;karagarritzko garbiketak egiten dituzte. Atal ori idatzi gabe dago gaur oraindik. Egiña izan ezkeroko asko ikasiko genuke...

Aita Jorge Aguirre'ren berriak Aita Olar;agak, Loiolako artxiboen arduradunak ematen dizkigu. Esker beroenak emendik bidaltzen dizkiogu.

Lenengo izenen zerrenda lenengo idazlanetan arkitzen dugu; idazlan ori ede-renetakoa daukagu. Leenengo idazlan onetan orrelako zugaitz ondoa datza.

Ementxen bertan iltzen zaigu, bizi da onetakoz.

Lenengo izen zerrenda onetan, danez gain izen aundi bat. Kongregationen arduradunaren argazkia agertzen zaigu; gazteen arduraduna aita Jorge Aguirre. Gizon oneri dagozkion berrjak aita Olariagak, Loiola'ko paper-zarren zaindaria eman dizkigu. Emendik eskerrik beroenak bidaltzen dizkiot... Zegamanjaio zen Aita Jorge Aguirre, 1885'garren urtean eta New Yorken il zen 1947'garren urtean... Jesus'en lagunarka delako elkartean 1905'garren urtean egiten du sarrera. Oña'n ikasten du filosofia, 1909'garren urtean... 1912'garren urtean Orduña'n asten ditu irakaskintzazko ikasketak. 1916'garren urtean Oña'ra doa teologia ikastera... Ikerpide garaia Deusto'ko ikasbide nagusian asten du. 1928'garren urtean Donostia'n jartzen dute lanean Kongregatio'ko gazteekin; ana; arteko borroka asi arte or dago (1936)...

Militarrak Euskalerrria eskuratzen dutela ertain-amerikara bialtzen dute. Esan Bezala New York'en iltzen da. Euskalerrriko ekaitz andi ortan, Aita J. Aguirrek' lana erruz egin zuen gazteekin. Oso langillea genuen eta buruz argia.

Ortxen agertzen zaizkigu izenen lenengo talde aundi orren inguruan. Beste izen batzuek Gure Mutillak, 1933.

- Aita Aguirre'ren langutzalle aundiak ditugu:

 - Elejalde'tar Blas: Luis'tarren lendakaria.

- Zumalabe Agustin: izlaria ta luistarra euskaldunen lege gizonen elkar-tea.

- Jose Peñak itzaldi bat ere eman zien.

Aipatu bearra ere Aretxabaletako LUISTARREN Meza emallea.

Meza emallea Arrasateko Arzipreste Juan Jose Arjñ, gero fusilatu zutena. (Gure Mutilla, 1933, azil).

Meza ondotik lasterketa izan zan, Lojendio Jose Maria, lege gizona. Talde orretan sartzen du bere izena.

Irabazle, Gatzaga'ko Arana'tar urrengo izenen taldea Euzkadi aldizkarian daukagu, pelota jokua izan zan.

Errenkan urrengo ekintza bataioa dugu; bi datoz. Lekukoak agertzen dire; Aita Julen Garro, ta ama Erretolaza'tar Serape. Joseba Iñak; euskel izen polita ezarri diote. Aita ta ama aberzaleak dira.

Beste bataioa Jose-Marina daukagu. Aita Urzelai'tar Simon dugu ta ama Madinabeitia'tar Julene (Euzkadi, 1934-V-4), kalean zuten baserria. Sendi ona. Urrango izenen zerrendak izlari batzuek aipatzen ditu (Euzkadi 1934-6-8). Izlari ospetsu oiek aukeratu dira:

- Alberdi'tar Maximo. Solidarietako eusko langillen idazkari dugu.

- Goikoetxea'tar Erroman ta Linazasoro'tar Karla.

- (Altzeta) Euskalerrri osoan ezagutzen dituzte, izlari aberzaleak oso onak bezala.

- Ugartetxea'tar Donota maiz lanean entzuten zana. Erbestetik etorritako izlaria.

Beste izenen zerrenda GALDERETAn dago (Euzkadi 1935-IV-24). Iru izar aundien izenak daude, erraldoien ereduak (Euzkadi-1935-4-24):

- Montzon, orduan gizona aundia ta gaztea, Ganuza'tar batekin ezkondua, Eskoriaza'n.

- Aguirre Jose Antonio, goimallako izlaria. Andik gutxira Lendakari izango dana
- Prieto, goimallako izlaria.

Bedoña'n Loramendi'n omenaldia dala ta, ekintza au geroko gertakizuna bezala gelditzen da. (Euzkadi-1935-Bagilla). Onen ondotik ezkontza dator (Euzkadi 1935-urrilla).

An alpatuak daudenak:

- Aguirre'tar Boni.
- Gaztañaga'tar Errupin.

BESTE EZKONTZA:

- Aguirre Gabirja Iñaki, Eibar'ko Unzeta'ren alabarekin. Oso gizon ona Lorentxo Peña'ren nagusia izanen, gazterik illa.

Azken zerrenda gudaritza delako taldea (Euzkadi 1935-X-29):

Urte artako kintoak ziran:

- Sasiain'dar Zezili, anaiarteko gudan i1 zan.
- Urrutia'tar Felix, Saseta gudari taldean j1 zan.
- Del Teso'tar Kelmén, etorkiña zan. Larogei urtekjñ il zan.
- Zubizarreta'tar Keperin, gizon on bat zan.
Olabe beserrian jaioa, Franko'ren aldean il zen.
- Zubizarreta'tar Lander Bolina baserrikoa.
- Unzueta'tar J. Mirena.
- Josu Peña'ren kinto lagunak ziren.

"Argia" delako egunkarian, Iñaki Deunaren egunean egindako bersolarien saioak agertu ziren... Baserrri ta Txapel ari dira elkar zirikatzen eta Baserrrik berso guztiz ederra gure Jose Peña'ri opa dio, (ARGIA, 1935-IX-29)... Berso ori orrela asten da:

"Arrasatera etorri naiz
andregai baten billa...

Orduko bersolari onenetakoak dira:

Txapel-Azpeitiko bersolari bat.

Basarrj joan dan urtean il da, 1999 garrenean (ARGIA, 1935-Dagoniltik 11)

Erriko jaiak direla ta beste izenen zerrenda ematen digu.

Oraingo onetan txjrrindulariak dira:

Montero anajak-Irundarrak.

Trueba-Santander'tarra.

Eskerra-Bizkaitarra.

Eskurriet-Balenziarra.

Jaioitza batekin lotuak izen batzuek agertzen dira. Urzelai'ta Kosme'ren emazteak neskati1 bat izan du. Mjren Josune jarri diote izena. Oso gizon jatorra dugu Kosme. Lenengo emaztea iltzen zaio ta berriz ezkontzen da. Dagoneko il ziren biyek,

Illeta baten barriakin, bizpauri izen ematen zaizkigu:

Altube'tar Peli il da. Bere semea Jon ere il da..., Orren ondotik bizpauri ezkontza berriak ditugu:

- Senarra, Arenaza'tar Eladio, baserritarra dugu.

- Emaztea berriz Aguriano'tar Justina. Oso emakume ederra dela esaten zaigu.

Besteak ezkontzan dauzkagu:

Madina Jauna, Orueta'tar Meltxorarekin MEDINA BANKUKO LANGILLEA DUGU. Gero fusilatua izan zan

1935'kintako mutillak izan zuten soldadu kintatik joan bearra:

- Azuatar Bitorino, Madrid'era (Argia).
Arrasaten lana egiten jarraitu zaien.
- Urrutia'tar Peli gudari spilara eskeni.
- Zubizarreta'tar Leandro ta
- Zubizarreta'tar Seberiano, Logroño'ra.
- Unzueta'tar Santi,
- Urliamendi'tar Juanito,
- Del Teso'tar Klemente
- Uribeetxeberria Kepa, Burgos'era,
- Sasiain'dar Zezilio ta Peña'tar josu, Santander'era.

Apaiz berria ere agertzen da, Jauregi Justo, Alkatearen anai gaztea.

Pelota partidua dalata izen pila aipatuak daude:

Etzaniz anaiak Sustarra ta Uribe'rekin neurtzen.

OSO PELOTARI ONA Sustarra agertzen da.

Bigarren partidua:Gabilondo ta Alberdi Aretxabaletarrak

Arrasate'ko Etxeberria eta Sara'ren aurka.

Etxeberria ori da "Zurdo de Mondragón" geroago deitua.

Alberdi ta Etxeberria oso egoki jokatu ziran.

Aberri eguna ospatzen dala Laisterketa egin zan. Besten gañatik agertu ziran Goxenola, Bengoetxea ta Uriarte izan ziran. (Eguna, 1937-Epaillak 31).

Arri jasotzallea ere izan zuten TXATO izenekoa.

Txato ta Alberdi txistua jotzen oso yayoak agertu ziren.

Pelotarien izenak azkenak. Alberdi ta Larrañagak, Lekume ta Elustondo'ri. (Eguna-1937 Epaillak 31).

Zorrotz aztertuz izenen zerrenda luze oietan agertzen dena auxe ikusten dugu: Izen ojekin ematen zaizkigun berriekin esaten zaigu, berri oiek oso bereziak direla ta nolabait Jesus Peñaren biziak ikusi bear duenak. Izan oiek naiko lotuak daude Jesus Peña'ren bizitzarekin. Or agertzen diren jakabideekin naikoa maite ditu eta oso atsegiñak zaizkio. Berri oiek eta ez besteek dute garrantzia gure idazlearentzak. Edozein berrjak ez dute balio, baizik beretzat zerbait esan nai dutenak. Berri oiek bere nortasunarekin nolabait lotuak daude.

JOSU PEÑA TA BASARRI

Gauza bat dakigu garbi asko, alkarren berriak, gertakizun onenak, Josu Peña'k ematen dizkigula. (Argia 1935-12-4).

Lenengo urratsa: Josu Peña'ren idazlana dago gai oni buruz argitaratua. Josu Peña'k Aretxabaletako jaien berriak ematen ditu, bersolari bi ekarten ditula: bat "Txato" eta bestea "Basarri".

Peña'k esaten digu aspaldi, Baserri'ri entzuteko zeletasuna zeukala. Ezin ditu gogoratu emen botatako bertsoak, bakar bat ezik, ezaguna, ala asten da:

Arrasatera etorri naiz
andra gaia baten billa
ogeta bi urteko mutilla

Gerxeago: 1-bezelako bersolari gutxi izaten dira, para;so bezelakoak, asko bear genituzke.

Baserr;ik auxe dio: mutil egokia dala andre gaien billa dabilzanentzat, baino ez du iritzirik agertzen Josu Peña'ri buruz idazle bezela. Ez alda naikoa esaten orrekin. Naiko mingarria da Josu Peña'rentzat.

Josu Peña il zuten urte berean, Basarri'k eskeintzen dizkio iru berso, eta berso oietan garrantzitsu aipatzen duena: "mando bat nola ingurutu zaien patataz betea. Jan dituzte patatak eta mandoari zigorra eman diote". Basarri'k esaten duana: "mando ori, gizonak baiño argiagoa dala".

Berriz agertzen zaigu, nola Basarri ri etzaiola ajolik Josu Peña ren idaztien edertasuna.

Naiko gogorra ori jakitea Josu Peña'rentzat.

"AITZA" IDAZLE LAGUNARI...

Gure "Aitza" jatorrak
Zer berri dakazki?
lengoa irakurriko
zenioten nozki;
mando bat ingura zaie
patata ta guzti,
azitarako asko
ez dezute utzi,
arrane pikaruak
etzaudete gaizki.

||

Zeuen mando beltz ori
portatu zaizute,
gixadu jana ederki
gozatu dizute;
deklarazioak ere
egin dizkizute,
mail ordez pentsua
eman zaiozute,
etzerate gizonak
iltzen badezute.

Zintzo inguratu da
 zeuen sallerano,
 janarjz kargatuta
 lepo azurrerano;
 politikarik ez dula
 berak emen dino,
 paxiotar, reketek,
 milla demonio,
 mando ori argiako
 oiek denak baio.

(Eguna, 1937-111-6)

"BASARRI", Inazio Eizmendi Manterola

GAURKO OLERKARI BATEN IRITZIA

Josu Peñaren idaztiak irakurtzen zoazela erri maillako bertsolari gazteari gaur eman dugu aztertzeko. Garbi jkusi nai genuen bertsolari berrj batek zer esango zigun atzoko gazte baten azterketari buruz lasterka batean. Joxe Iñaxio Salaberria gaurko gazte bat degu euskaldun berri batr Gazte au oso euskalduna degu naiz ta iri aundi batean sortu izana, gaiñetik baserrjko lanak oso ondo ezagutzen ditu.

Emen Donostin jaiotako mutil onek zortzi bertso lau errenketan argitzen dizkigu ain ongi bertso paperak ulertzen dituna. Jarraitu zure bertso orrekin. Emen daukagun bertso luzea irurogeitalau (64) errenkakoa da eta erri kutsu egitazkoa dauka baita bertsolariena.

Danez gaiñ xamurtasuna agertzen digu errikoi baten biotza bere adiskideari irikitzen zaiona benetan gauza aundiak esateko.

Asieratik euskeraren jatortasuna nabaritzen du. Erriko izkuntza ederra bere baitan sentitzen du eta naiko luke benetan aberatsa garbia eta soilla erriarentzat.

Erria benetakoa berealaxen nabaritu du danez gaiñ argitasun aundiz indarra ematen badaki eta orrela gure artean gelditzen da adjskide, lagun eta langille on bat bezela.

Gure artean errexa ikusten orrelako gizon baten dizdira barnean egozten zaio asmo zoragarria eta orri begiratuz sortzen zaio usai goxoa bread.

Naiz goi maillako gaiak erabilli eztabil baztarrak lertzen, nundik nora gaurko-tasanari begiratzen dio naiko diru izango balu bezela ordaiñak zuzentzeko.

"AITZA" KAZETARI ARGITSU BEZAIN KEMENTSU

7-

Jesus Peña zun izena,
eta "Aitza" goitizena,
gerra aurreko egunkaritza
nabarmendu zena;
barruan zun euskal sena,
gutziz sendo ta ozena,
garbi dagona idazle aldetik
zala txukun ta txuxena.

5-

Eskolatik ia etzen pasa,
alaxe ezkenun eskaxa,
bera irakurtzen ilustratu zan
ziaro bere kaxa;
iskribitzen zun erraxa,
izkitan piper ta gatza,
omenaldi bat biarko luke
guregandik oraiñ jasa.

2-

Euska! Pizkunde aroa,
Arrapatu zun oroa,
Euskal gaġetan lana egin zun
Umilki ez arroa;
Emaitzetan oparoa,
Euskeraren esklaboa,
"Aitza"ren lanan funtsa guziak
iturri onetik daroa.

6-

Atxabaltarra gaztia,
etzan ibilli tristia,
aldizkaritan ederki emana zun
tokatzen zan albistia;
goxua eta ezta,
zegov doaiez betia,
bera galdu zan baiña aren itzak
sekulan galduko ezta.

-3-

Konturatutzen ezker,
txotxolo batzun tankera,
"Aitza" k idazten lau aldetatik
bazula egokiera;
mutil onen idazkera,
beñetzan izan okerra,
bi arlo ziñez landu zituben
kazetaritza ta euskera.

-7-

Gaztetasuna aldeik-alde
eta sasoia ezin obe,
orduan gerra aillegatu zan
eskatu gabe debalde;
"Aitza" k etzun egin alde,
barrukan parte artu gabe,
zeukan guztia dudatu ezean
eman zun errian alde.

"Gure Mutillak" aurretik,
 "Argia" ere gertutik,
 "Euzkadi-n bertan miatu ezker
 badu bere aztarnik;
 guda asi ezkeroztik,
 ark edan zun "Eguna"tik,
 Euskalerriko kazetaritzan
 alegindu zan gogotik.

Berriemaille abilla,
 idaztiak zitun pilla,
 danak batera bildu ezker
 oi lan borobilla!;
 euskeraz etzan debilla,
 ez nolanaiko mutilla,
 buru argia zudukalako
 Izandu zan erailla.

JOXE IÑAXIO SALABERRIA

JESUS PEÑA'REN IDAZ-LANAK

ZENB.	IRIA	EGUNA	IZEÑA
GURE MUTILLAK (1933-1937)			
59	DONOSTIA	1933-AZILA	ARETXABALETA LUISTARREN JAIA
EUKADI (1933-1937)			
	BILBAO	1933-IX-27	ARETXABALETA
		1933-XI-25	ARETXABALETA
6.677		1934-V-4	ARETXABALETA
6.707		1937-VI-8	ARETXABALETA KORUETA
6.766		1934 DAGONILLA 16	NUN DIRA
6.967		1935 JORRAILLA 24	ARETXABALETA
7.000		1935 BAGILLA 2	ARETXABALETA
7.127		1935 URRILLA 29	ARETXABALETA
ZENB.	IRIA	EGUNA	IZENA

ARGIA (1934-1936)

723	BILBAO	1935 - Otsaila - 17	ARETXABALETA
724		1935 - Otsaila - 24	ARETXABALETA
725		1935 - Epaila - 3	ARETXABALETA
726		1935 - Epaila - 10	ARETXABALETA
728		1935 - Epaila - 24	ARETXABALETA
732		1935 - Jorriailla - 21	ARETXABALETA
748		1935 - Dagonilla - 11	ARETXABALETA
755		1935 - Irailla - 29	ARETXABALETA

ZENB.	IRIA	EGUNA	IZENA
761	BILBAO	1935 - Azilla - 10	ARETXABALETA
774		1935 - Otsailla - 9	ARETXABALETA
797	"	1936 - Uztailla - 19	ARETXABALETA
EGUNA (1933-1937)			
2	BILBAO	1937 - Urtarrilla - 2	AURTENGO GABON EGUNAK
53		1937 - Epailla - 3	ARETXABALETA' RA GUDA
64		1937 - Epailla - 19	ARETXABALETA'RA GUDA
76		1937 - Epailla - 31	ABERRI EGUNA EIBAR'EN

ARETXABALETA: LUISTARREN JAIA

Nere luma txiro onek jun dan igandean emengo Luistarrak egin duten jaialdi bñkaiñ ta alaiari bear bezelako garrantzia emateko kemenik ez ote duan izango bildur naiz.

Baj, irakurle, alaia zan benetan, igandeko eguna, Luistarrak garbitasunezko biotza azaldu zuten egun ori. ¡Ez det uste iñoiz aztuko zaiela egun ori, emen bildu ziran Luistar gazteai. Ez orixe.

Goizeko seitaerdietan, gure eliza gazte talde bikaiñez beteta zegon. ¡Ura edertasuna!

Aita Agirre'k ederki berotu zizkigun biotzak bear dan bezela Jauna artzeko. Eunen bat Luistar izango giñan jauna artzen. Ikusten genuan zein alai zegoan gure gaztedia, eta nere buruari nion: Gaur egun ederren bat badiau: Eta alaxen gertatu ere, Jaungoikoak ala nairik.

Bederatzi ta erdietarako, erbesteko luistarrak gure bostekoa eskeintzen asi giñan: Urrestil"goak ziran (enbizi azaldu ziranak, bere ikurriñ ederrarekin. Gajzki esan det, lenbizi Gatzaga'koa zan, eta ondoren, len esana, Urrestilgoa.

Gero, berriz, bereala Durango'ko luistar gezte talde ederra ikusi genuan; 26 etorri ziran: ¡Ederki! Eta orrela, gu batere konturatu gabe, erbesteko luistarrez beteta ikusi gendun eliza. Ura gurepoza!!!

Meza nagusia asi da... eliza beteta... Arrasateko Arzipreste, Joan Jose jaunak, eman zuan meza. Itzaldia berriz Aita Agirre'k baña... ¡nolako itzaldia! "makiña bat" luistar euki zuan berari begira ao zabalik... Amaitu da meza nagusia... orañ laisterketa. Batzuk zioten, tamalgarria zala... zazpi bakarrik etortzea laisterketa onetara, baña nik ez det uste...

Nik naiago ditut "dozena" erdi perretxiku onak, bi "dozena" nola naiokoak baño... ¡¡Ez dute on egiten on ez diran perretxikuak!! Eta gu, ziur geunden, igandean laisterketara etorri ziranak, luistarrak zirala... au da... "perretxikuk onak zirala" eta orregatik, gu... oso pozik...

Bukatu da, laisterketa... Gatzaga'ko Aranatar ¡¡ari lenbizi sartu zan... bigarren bere anaia... Ondo irabazia ornen zuten...

Ondoren... jkakiñal Ordubatak izanik... bazkaria... 60 giñan guziak eta bazkaria, nolakoa ordea? Guztiok, ao batez esaten genun, bazkariagatik ederki guziz ederki ipiñita, ta emana zegoala.

Alaitasun aundiagaz igaro genduan, bazkariko denpora... gazteari dagokion eran... eta Aita Agirrek zion bezela, arrigarria zan, ainbeste gazte artean itz bat ere ez entzutea, bear ez dan bezelakorik... Orregatik bada, kristau alajari dagokion eran igaro genduan gure bazkari bitartea.

Ondoren, berriz... itzaldia...

"Oremus por Pontifice", abestu ondoren, asiera eman zion, Elejalde"tar Blas'ek emengo luistarren lendakariak: oso egoki mintzatu zun, eta oso txalotua izan zan.

Zumalabe, zan gero, itz egin zuana, au ere ederki mintzatu zan, eta ondo jra-baziak zituan, egin zizkioten, majtetasunezko txaloketak.

Ondoren Peña'tar Josu'k, au ere besteak bezela txalotua izan zan, poliki mintzatu zan. (1)

Gero Lojendio J.M. jauna, Legejizon azkarra. Guztiz arrituta utzi zuan emengo "jendea" izlari trebe ta yayo onek. Uskuztza ta Euskalerrria goratu eta altxatu zituan guren gereneraño; eta onek esan zuna gogoan artu eta egiten badegu, benetan atsegiñez batata biziko geralakoan gera. Amaitzeko, Aita Agirrek berriz ere itz egin zuan, eta au ere txalotu zuten, goizeko itzaldia oroitzea naikoa zan...

Itzaldi bitartean an ikusi genuan, Gatzaga"ko ikurriña, Urrestil"goa, Azkoiti, Donosti, Arrasate, Durango...

Guziai eskerrak ematen dizuet, gure jai aldi au edertzera etorri zeratelako. Ederkj bete dezute zuen egin bearra.

Ondoren, guzcion argazkja atera genduan, baita ere jkurriñ eta izlariena; eta gero, berriz Aretxabaletako luistarrena.

Bereala, pelota jokoa eta onela bukatu zan, ainbeste poz gure biotzetan sortu digun eguna... Ez naiz aspertuko esaten, ez dela egun alaiagorik sortu gure biotzetan egun ori baño...

Orrelako egunak, jakiña, guzientzako ez dira izaten pozgarriak, eta emen ere baziran begj okerrez ikusi zutenak... Orrelako bat zan, esaten ari zana, gu, gazteok, "pelotilla" egiten ari giñaka, Apaizai, eta beste milla kertenkeri esaten ari zan, eta orrelakoren batean, ausartu zan, esaten ere, gu "insientsoa" jan bear gendukela. Ori entzun nuenian, ezin nun jasan (sufritu) gayago, eta esan nion. Iri beintzat ez dik on egingo, garagar asko jaten dek eta. Badakit gaizki esana dala, baña baita ere badakit ondo "merezia" zuala.

Dana dala, esker berezi bat ematen beartua gaudela esan bearrik ez dago, Aita Agirre'ri eta orrela izanik, emendik bertatik eskejntzen djo, ainbeste lan egin dualako aste osoan, Luistarrok, alik eta ondoen gertatzeko, jai aldi bikain orretarako.

AITZA

(1) Oso itzaldi egokia egin bait zuan.

ARETXABALETA

Aginduta bezela, gaur atsegingari zait, jakin arazitza emengo Luistarrak antolatatu dituen jayaldiaren beri.

Eginkizunak

Andra Maria'ren alkartasuneko ikurriña onetsi; bear dau egunerako alik arduatsuen gertutzeko, il onen 25'ean aratsaldeko 7'tan asiko da, astebeteko Gogo jardunaren txanda, eriko mutil gasteentzat. Josu langundiko Agire'tar Abak zuzenduaz.

Urilaren lenengoan:

Goizeko 6 ta erdjetan: Gure Jauna artzeko Meza (itzaldi eta abestiakin).

Goizeko 10'an: Alkartasuneko juriñaren onespina. Meza Nagusia bere itzaldiakin. Perosi'ren 2'garen "Pontifikala" abestuko da. Itzaldia egingo du Josu langundiko Aita batek.

Goizeko 11 ta erdietan: Txirindularien laisterketa:

Bidea

Aretxabaleta'tik irten, Arasate, Agate Deuna, Arasate, Aretxabaleta, Eskoria-tza eta Aretxabaleta'n bukaera. Gustiz 20 aneurkin.

1'g. 25 laurleko

2'g. 15.

3'g. 10.

4'g. 5.

5'g. 3.

6'g. 2.

Laisterketa onetara jua nai duanak, bere jena Barutia'tar Eromalda'ri eman bear dio, eta bear bearezkoa zayo luistara izatea.

Eleizkizunen bukaeran, Euzko - Etxeko, ezpatadantzarien sayoaldiz.

Bereala izango da, txistularien erkidetasun bikaña.

1'etan: otoruntza nagusia.

Aratsaldeko 3 ta'erdietan.- Urj Buru Batzar E.A.B.'ko gorularien dantza alai-alai ta bikañik egingo dizkigute. Dantza au amaituaz, bereala; Korueta'ko enparantzan, itzaldi aberkoyak izango dira, eletari aotxeak itxeginik:

Alberdi'tar Maxima.

Goikoetxea'tar Eroman.

Linazasoro'tar Karla "Altzata"

Ugartetxea'tar Donata

Jayaldi bikain ori ikusi ta? Nor gelditu Korueta'ra jun bage? Ondo dakigu, guk, kaletarik zenbait zor diogun Korueta'ko auzoai abertzaletasunean. Agian baliteke Euskadi'ko auzo abertzaleena izatea gure Korueta zintzoa. Ez alzerate oriotzen igaro diran auteskundietan, Korueta'tik eun bat bezela etori ziranakin beren autarkia abertzaletasunarentzat ekaririk.

Beartuak gaude ba, datoren igandean 10'an Koruetako anayakin bat eginda egotea.

¡Aupamutilak! ez aztu korueta'rekin.

AITZA
LATXAGA

IDAZKI-OSTEA/EPILOGO

Euskararen zama b;zkarrean, makurturik Latxaga Jauna, gaitzaz jota bere ibil; ezinean ere geldi egon ezinik, Tuterako "Nafarroa Oinez" egunean ere han behar zuela izan goiztiar, eta hau idazten duenaren bitartez, Lorentxo Peñak eskaini zion beti bezala bihotz zabal Donostiatik Tuterainoko joan-etorrirako bere autoaren aukera ezin hobea.

Hortik sortu zen beren arteko elkar ezagutza eta harrezkero makinatxo bat ibilald; egin dute, Lorentxo txofer, bazterrik-bazter mila eratako paper-zahar eta argibideak arakatzen.

Harreman horietatik jaso ahal izan zuen Latxaga Jaunak Lorentxoen ahotik Jesus bere anaiaren arrastoa eta arrasto horri jarraituz berari zor za;jo batik bat, herriaren oroitzapenean erabat galdua eta garai hartan euskal kultura arloan sormen zetorren Jesusen izakortasuna gaur egun argitara atera ahal izatea.

Euskerazaintzak duen beste egitasmo zabalago eta mardulago baten baitako atal osagarri bat izango da Jesus Peñari dagokion zati hau, baina Aretxabaletarren omenez onuragarri izan daitekeelakoan, bereizturik argitaratzea ere begi onez izan da ikusia.

Jesusen idazlanek esaten duten edo esateko era aztertzea Latxaga Jaunaren esku utziz, berak hartu zuen bidea hartzeko izan zuen argitasuna eta herr;aren egoera hartan, horren gazte, bere kabuz agertzen zuen egingaitasuna dira baita -ere, berengan azpimarragarri.

Ez norbait, baizik eta baita zerbait galdu zuen Euskalerrriak Jesus galtzeaz.

Zorionez, azken bolara honetan gaindituak ditugu Errepublika jorratzen hasberri ziren gure kultura eremu idorrak eta litzateke zuzenezko izango garai hartako gertakizunak gaurko egoerako ikuspegitik neurtu nahi izatea; gure begiek ere ezin izaten dute urrut;ko iduri eta gauzak beren neurrian harrapatu; la;noberran zirriborrotu eta urruntasunaren arabera, beti, diren baino apalago agertzen zaizkigu.

Ostarte bat besterik ez zen izan, Euskalerrrian, Primo de Riveraren diktaduratik guda arterainoko abagunea, eta b;jtarte hori nahikoa Jesusek bere baitan zeraman euskal senaren hazia erne eta bere emajtza goiztiarrak ematen has zedin.

Izugarrizko prezioa bere idazlanena: bizia kosta zitzaion.

Badu bai merezi Jesus Peñak euskal kultura arloan aipamenik.

J. ATXA

GUDAKO ESPETXERATUEN ITZAK

GIROA AGERTZEN

"Idazle su-izkillatuak" kontuan doguzala eta bear genduzan albisteak batzeko asmoz, Bizkai'ko Artea edo Gaztelu Elexabeti'n dan "SABINO ARANA KULTUR-ELKARTERA EDO FUNDAZIOA"ra urreratu naz eta oso ondo artua izan naz etxe aretan. Beioake nire esker ona guztiai eta batez be Jauregi ta Beraza'tar Eduardo'ri.

LIBURUA TA GAI AU

Idazle su-iskillatuak gai dituan gure liburuan ete dauko lekurik emen aztertzen dogun expetxeetako giroak? Ezetz dirudi, gauzea, azalez begiratu ezker, baiña azterketa zeatzagoa egin ezker laster ikusten da baietz, ba-daukala zer-ikusia eta ez txikia. Gure idazle su-izkillatuak, euren azken-aldian zelako giroan aurkitu ziran adierazten dausku emen egingo dogun azterketa onek.

NORTZUK ZIRAN

Antxiñako Erromatarrak barru-min audiz esaten eben "Vaeh victis!" edo "Ai-ene, guda-galtzailleak!" Eta ori orrelan izan da beti, gaur-egun ba-dira laterriarteko legeak arerio azpiratuak zelan artu bear diran agintzeko, baiña alperrik dana! Guda galtzen dabenak gaur be oso txarto ikusten dabez euren buruak. Ori beti, baiña geiago guda laterri baten barruan alkarren aurka danean. Zelako basatikeriak egiten doguzan! Zelako basatikeriak egin ziran, emen aitatzen diran euskaldun errukarri onein aurka!

Emen aitatzen doguzan gizonak gudako atxillotuak dira baiña ez guztiak burubide batekoak. Erria bera askotarikoa dan lez, atxillotuak be askotarikoak. Politika-aldetik batzuk JEL (PNV)'koak beste batzuk ANV'koak, beste batzuk Sozialistak...